

Bilkura berezian ikastetxeek azaldutako PROPOSAMENAK (03-04 ikasturtea)	Arrasateko Udalak hartutako erabakiak edo/eta egindako lanak	Debagoieneko Mankomunitateak hartutako erabakiak/eta egindako lana
<p>- Aipatutako azterketa gure ikastetxean egin ondoren, eta udaleetxean sortzen den zabor mota nagusia papera dela kontuan harturik, honelako azterketa bat egitea proposatzen diogu udalari; zenbat paper sortzen den urtean, zein erabilera ematen zaion, ea berrerabiltzen den eta abar aztertu eta kontsumoa gutxitzeko neurriak hartzen hasi.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 2005 urtean Arrasateko Udalak Ekoscan-a egingo du Udaletxean. Jarduera baten diagnostikoa egiten da, ingurumenean eta ekonomian oinarritutakoa. Helburua jarduerak sortzen dituen hondakin eta isuriak (airean eta uretan) txikitzea da. Aztertuko diren udal arloak hauexek izango dira: <ul style="list-style-type: none"> . Udalaren barruko antolakuntza. . Ingurumena eta kalitatearen kudeaketa. . Jarduerak eskatzen duen legediaren betetzea: ura , isuriak, soinua, atmosfera. . Produkzio prozesua . Ura eta energiaren kontsumoak. . Sortzen diren Hondakinak, emisioak eta zaratak. <p>Datu guztiekin txosten bat egingo da, ingurumenean aktibitateak daukan ondorioak adieraziko dituen. Eta aurkitutako arazoak saihesteko alternatibak aurkeztuko dira.</p>	
<p>- Bestetik, ez litzateke txarto egongo informazio eta sentsibilaizazio kanpaina bat egitea herriko enprekin.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Arrasateko Agenda 21eko Ekintza Planaren barruan, bere 6.lerro estrategikoan hurrengo programak ditugu: "Convenios municipales con sector comercial e industrial para reducir la cantidad de envases y embalajes y promover el uso de bolsas de compra 	<p>. Denda eta lantegietako kartoi bilketa zerbitzuari buruzko kanpaina antolatu izan da.</p>

	reutilizables, botellas retornables,..."Colaborar con IHOBE en la difusión y aplicación de programas y prácticas de Producción Limpia en las industrias".	
- Monterron parkea eta Seber Altube plaza sarriago garbitu behar diren edo ez aztertu.	<ul style="list-style-type: none"> • Hemen arazoa, nahiz eta goizero gunea garbitu, arratsalderako berriz zikina egotean datza. Bakoitzak hartu behar dugu konpromisua gauzak erabili ondoren ondo uzteko. 	
- Autobus geltokian txartel informatzaile batzuk jarri beharko ziren, zaborrak nora bota gogorarazteko eta txikleak eta zigarro hondakinak ere zaborrak direla esateko. Horretaz gain, ez litzateke gaizki etorriko gaur egun lurrean itsatsitako txiklez josita dauden txoko batzuk garbitzea (adibidez Garibai kaleko arkupeak).	<ul style="list-style-type: none"> • Garibai kaleko autobus geltokian zaborra pilatzen da; gunea hori egunero garbitzen da makinarekin eta bertan zakarrontzi bat ere badago. Beraz, zikina egotearen arazo bakarra jendearen jarreraren datza. Bestetik esan behar dugu urtean behin txikleak kentzeko lana egiten dela herriko gunea batzuetan, baina oso lan astuna da eta ez ditu oso emaitza onak ematen, ez da oso sistema efektiboa. Berriz azaldu behar dugu denon eskuetan dagoela irtenbiderik onena. 	
- Udala auzoan behar-beharrezkoa da zakarrontziak hutsik uzteko maiztasuna urtaroetara egokitzea (uda partean gehiago garbitu behar da). Bestalde, ezinbesteko ikusten dugu berdeguneak tarteka garbitzea, hor ibiltzen diren haurren osasuna eta segurtasuna bermatzearen (beira zatiak eta botila kopurua izugarria da, adibidez).	<ul style="list-style-type: none"> • Auzo honetan urtean zehar zaborra batzeko maiztasuna astean behinekkoa da, eta udakoa, berriz, astean birritakoa, gutxienez. Hala ere aztertzen ari da uda aldean maiztasuna handitzea. 	

<p>- Gure herriko hainbat tokitan (Seber Altube, Obenerreeka kalea, Gazteluondoko inguruak,...) gehiago garbitu eta paperontzi gehiago jarri behar den aztertu beharko da.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Egia da Arrasateko hainbat txoko nahiko zikin agertzen direla. Zerrajerako etxeen aurrean erreka baztarretako adar eta bedarrak eta metatzen diren hondakinak urtean behin garbitzen dira, udazken aldean. Hemendik aurrera urtean bitan egingo dugu garbiketa; bat udaberrian eta beste bat udazkenean. Bestetik, Obenerrekatik Mesedeetako ikastetxera doazen eskailetan astean behin garbitzeko agindua du emanda Udalak, behar bada udazkenean orbela egoten da, baina egoera puntuala izanik ez da arazo handia ikusten. Gazteluondo gunea astean behin garbitzen da goiko aldea eta behekoa (frontoia) egunero. Sail handiak daude han eta ezin da dena egunero garbitu. Bestetik herriko plazan ez dago inongo zakarrontzirik eta honen aurrean Mantenuko departamentuan zakarrontziei buruzko azterketa bat egiten ari da herrian beharrak zeintzuk diren ondo jakiteko. 	
<p>- Arrasateko Udalak txakur kaken gaiarekin kanpaina bat antolatzea, txakurren jabeak kontzientziatzeko. Bestetik, jaramonik egiten ez duten jabeek isunak jarri beharko zaizkie</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gabonak inguruan sentsibilizazio eta informazio kanpaina egin da animaliei buruz. Arrasateko etxe guztietan liburuxka bat banatu zen animaliekin bizikidetzaren egoki bat izateko aholku eta informazioarekin. Kanean bi informatzaile ibili ziren. Herrian zehar pipi-canak (kaka lekuak) eta kakak batzeko zakarrontziak poltsatxoekin jarri dira. • Arrasateko Agenda 21eko Ekintza Planaren barruan, bere 6.lerro estrategikoan hurrengo programa dugu: "Actuar contra las deyecciones caninas en la calle y de palomas en los edificios". 	
<p>- Oraindik beharrezkoak dira</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Arrasateko Udalak (Udalako Ingurumen Eskola) 	<p>. Azken uteetan asko izan</p>

<p>herriarentzat informazio, komunikazio eta sentsibilizazio kanpainak.</p>	<p>hamar urte darama Mankomunitatearekin batera zaborraren problematika aztertzeko kanpainarekin (ikastetxeetan eta kalean). Udalak hainbat liburuxka atera ditu gai honekin lotuta.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arrasateko Agenda 21eko Ekintza Plana barruan, bere 6.lerro estrategikoan hurrengo programak ditugu: "Divulgación ciudadana sobre la problemática de los residuos urbanos y necesidad y posibilidades de reducir su generación, programas de sensibilización (envases, embalajes, bolsa compra,...)", "impulso de la sensibilización ciudadana para la recogida selectiva y reciclaje de los residuos urbanos", "Información continuada al público del funcionamiento y resultados del Garbigune", "Mejorar la información (días, horarios, itinerarios,...) sobre recogida de enseres y voluminosos". 	<p>dira Mankomunitateak antolatutako ekintzak: birziklapen gida (bi aldiz), garbiguneei buruzko kanpaina, denda eta lantegietako kartoi bilketa zerbitzuari buruzko kanpaina, puntu berde mugikorrari buruzko informazio kanpaina,...</p> <p>. Azpimarratzekoa da aurten laister martxan jarriko den proiektu berri bat:</p> <p>Diputazioko dirulaguntzarekin konpostadoreak erosiko dira eta Debagoienean lorategi edo esparrutxo bat duten etxeetan banatuko dira honela konposta egin ahal izateko gero erabiltzeko.</p> <p>Ikastaroak antolatuko dira jabeek jakiteko zelan egin behar den eta zelan erabili.</p>
<p>- Edukiontzien mantentzea hobetu behar da (inguruak garbi, edukiontziak garbi, leku egokietan</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Edukiontzien bilketa Mankomunitateari dagokio. Astero egiten du udalak edukiontzien gestioari buruzko kontrola. Argazkiak ateratzen dira eta guneak 	<p>. Paperaren edukiontziak astean bi edo hiru aldiz batzen dira, baina egia da</p>

<p>jarri,...).</p>	<p>zikinak daudenean mankomunitatera bidaltzen dira egoeraren berri izan dezaten eta neurriak har ditzaten.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arrasateko Agenda 21eko Ekintza Planaren barruan, bere 6.lerro estrategikoan hurrengo programak ditugu: "Estudio de ubicación de contenedores de recogida selectiva, para mejorar su eficacia y rendimiento", "Instalación de contenedores soterrados", "Ampliación de puntos de recogida separada y reciclaje de vestidos y residuos textiles". 	<p>askotan gainezka egoten direla.</p> <p>Egia da pisu gutxi daukaten edukiontziak, edukiontzi oriak, haize zakarra dagoenean mugitu egiten direla, hori ekiditzeko pibote batzuk jarri dira edukiontziak mugi ez daitezen.</p>
<p>- Ikastetxeetan paper asko sortzen da eta ondo egongo litzateke papera jasotzeko sistema berezi bat aztertzea udalak (ikastetxeetan papera bildu eta enpresaren bat handik pasatu jasotzeko).</p>		<p>. Eskola guztiek dauzkate edukiontziak ondoan, Gazteluondokoek ezik, eta horren arrazoia kamioia bertatik pasatu ezin delako da.</p>